

ERDI AROA

IKUSI BIDEO HAU:

❖ Noiz hasi zen Erdi Aroa?

- a) K.a. 476. urtean, Erromako inperioa erori zenean.
- b) K.o. 376. urtean, Erromako inperioa erori zenean.
- c) K.o. 476. urtean, Erromako inperioa erori zenean.
- d) Aurreko erantzun guztiak gaizki daude.

❖ Noiz amaitu zen Erdi Aroa?

- a) K.o. 1492. urtean, Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman zionean.
- b) K.o. 1492. urtean, Kristobal Kolonek Amerika aurkitu zuenean.
- c) K.a. 1492. urtean, Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman zionean.
- d) K.a. 1492. urtean, Kristobal Kolonek Amerika aurkitu zuenean.


FEUDALISMOA:

Erromatarren inperio handia erori ondoren erlijioak izugarriko garrantzia hartu zuen eta gizarteak aldaketa handiak izan zituen.

Garai honetan gizartea 3 estamentutan banatuta zegoen eta jaiotzetik estamentu batekoak edo bestekoak ziren.

Oinarrian herri xehea (nekazariak, abeltzainak, esklabuak) zegoen eta oso pobreak ziren. Ez zekiten irakurtzen ezta idazten ere.

Herri xhearen gainetik kleroa (eliza) eta noblezia (zaldunak, printzeak eta printzesak) zeuden. Herri xheak beraientzat egiten zuen lan. Hauek irakurtzen eta idazten zekiten.



Azkenik guztien gainetik erregea zegoen. Kleroa eta nobleziak erregea babesten zuten.

ARIKETA: Zein zen gizatalde bakoitzaren eginbeharra?

Noblezia	Denontzat lan egitea.
Herri xehea	Otoitz egitea eta kulturaz arduratzea.
Kleroa	Borrokatzea eta herria babestea.

AL-ANDALUS:

❖ Erromatar inperioaren ondoren nortzuk agintzen zuten Espainian?

Indiarrek

Arabiarrek

Erromatarrek

Bisigodoek

❖ Zein urtetan konkistatu zuten musulmanek Espainia?

800. urtean

711. urtean

723. urtean

611. urtean

❖ Aukeratu erantzun zuzena.

a) Musulmanen erlijioa _____ zen.

b) Bisigodoen erlijioa _____ zen.

❖ Noiz kanporatu zituzten musulmanak Espainiatik?

1490. urtean

711. urtean

1492. urtean

1643. urtean

Erdi aroan erlijio musulmanak eragin handia izan zuen. Gerra luzeen ostean Espainia eta Euskal Herria beraien eskuetan geratu ziren. Honen erakusgarri ditugu hainbat eraikuntza:



Granadako Alahambra



Kordobako mezkita

Nahiz eta erlijio musulmanak eragina izan, eliza katolikoak eragin handiagoa izan zuen erdi aroan lurralde osoan. Gainera musulmanak kanporatuak izan ziren Espainiatik.

ARTE GOTIKOA ETA ERROMANIKOA:

Erdi aroko artean bi garai bereizten dira:

1) ARTE ERROMANIKOA:



Arkitekturan horma sendoko eta leiho txikiko elizak eraiki zituzten. Ilunak ziren. Elizen oinarriek gurutze latindar forma zuen.

Eskultura erromanikoan egurrezko eta harrizko eskulturak egin zituzten elizarekin erlazionatuak. Ez ziren handiak izaten. Ez zuten mugimendurik eta sentimendurik adierazten.

Pinturan erlijioarekin loturiko margolanak egin zituzten elizetan bereziki. Kolore biziak erabili zituzten. Herri xeheak irakurtzen ze zekienez erlijioa pinturaren bidez irakasten zitzaien.



2) ARTE GOTIKOA:

Arkitektura gotikoan aurrerapenak eman ziren eta eliza handiagoak eta katedralak eraiki zituzten. Oinak gurutze latindar forma izaten jarraitu zuen. Leiho handiagoak egin zituzten eta leihoetako beirak margotzen hasi ziren. Eraikinek xehetasun gehiago zituzten.



Eskulturari dagokionez erlijio gaiak nagusitu ziren baina baita bestelako gaiak ere. Irudiek mugimenduak eta sentimenduak adierazten zituzten. Erretaulak egiten hasi ziren eta hilobietan eskulturak egiten.



Pinturan egurrezko lehen koadroak agertu ziren. Erlijioa gaiak eta gai ez erlijiosoak (nobleen inguruko erretratuak) margotu zituzten. Kolore biziak erabili zituzten. Paisaiak ere agertzen ziren irudien atzean.

❖ Irakurri duzunaren arabera aukeratu erantzun zuzena.

- Eliza txikiak eta ilunak ziren.
- Mugimendu eta sentimendurik gabeko eskulturak egin zituzten.
- Katedralak handi eta argitsuak zituzten.
- Leihoetako beirateak margotu zituzten.

